

K2

Felix Iñurategi

MAIATZAREN
hamarrean iritsi
ginen

Islamabadera, lagunak
Sondikan despeditu eta
Londresen zerbeza
batzuk hartu ondoren.
Ordurako sprintik
gogorrena egina moduan
utzi genuen etxetik
ateratzeko azken uneko
prestaketak burutzeko
(azken unekoak eta azken
unerarte egin ez genituen
aurreragokoak ere bai,
noski) eta patxadatsu hartu genituen
berrogei gradupeko aurreneko orduak.



Foto: Iosu Bereziartua

Repartiando la comida

Rawalpindira taxian orduerdian joaterik badago, hiru ordu laurden trafiko arazoak daudenean, hau da, gehintsuenetan, ordu-terdi, beraz, joan etorrian, bider itzuli t'erdi batzbeste egunean, hemezortzi taxi ordu pertsonako mendira joan aurreko zortzi eguneko epean, 72 ordu espedizioako lau lagunak artean eta 108 Josu eta Juan Tomas kontuan hartzen baditugu. Horri Skardura joateko autobusean egindako hogeitalau orduak eta Askolera bidean jee-petan sufritutako hamarrak gehitzen badizkiogu, badira, mordoxka.

Islamabad korrika utzi genuen; azken uneko gehiegixko gelditu zitzaizkigun, pulamintua ere eskasian erabili baikeenuen eta Turismo Ministeritzan Taleh Mohamed jaunaren pazientzia eta errukia agortu aurretik hankak jasotzea komeni zitzaigun, taxian bueltaka egin beharreko orduak bikoiztu ez zitezen. Jainkoz hortzak erakutsi eta farre eginez arrankatu zuen autobusa gure gidari tripa haundiak.

Benetako irteera

Askolen ematen zaio benetako irteera espedizioari. Inork ez daki nondik eta nola baina kargak eramateko espedizioak behar duen adina lagun agertzen da goizeko lehen ordurako eta bakoitzari bere material pertsonala (betaurrekoak, oinetakoak, guanteak, galtzerdiak, estalkia, ...) eta 25 kiloko karga banaturik ekiten zaio astebete iraungo duen sei etapako bideari. Hori bai, espedizioaren 108 karga eramateko, 142ko taldea osatu zen (beren janak eramateko), bi ahuntz eta behi baten jabe ere egin ziren espedizioaren kontura, artzai bat animalioak Payu-raino eramateko, bi sirdar edo arduradun desmadre

haundiegirik sortu ez zedin eta, bateko eta besteko, Albertoren koadernoan kabitut ezin hainbat datu, izen eta zenbaki.

Beheko kanpamenduan gure tramankulu guztiekin utzi gintuztenean arindu zen dirupoltsa, deskantsua hartu zuen Albertoren koadernoak, bukatu ziren presa eta iritsi-ezina eta, behingoz, ederki kostata bazen ere, mendiari begira geunden, patxadaz, Kikereren analisisen, Albertoren kalkuloen eta Juanitoren botereprontoen artean zer eta nola egin genezakeen aztertzen. Islamabaden ez bezala, freskotasun haundiz ekin zitzaion lanari, kanpamendura iritsi eta 48 orduren buruan mendian gora baikindoazen. Hiru ordulaurden glaziarrean gora pareta barrenera, granpoiak jantzi eta ttipi-ttapa lehenengo metroak hiruehun-lauehun bat irabazi arte. Gero, ibilbidearen maldari zor zaion errespetua



Fotos: Hnos. Iñurategi






Foto: Juanito Oiarzabal

Entre el CI y CII a 6.800 m.



gordez, soka, inondik ahalean harritik-harri-
ra, ongi lotuz eta ezkerrean goitik behera
zetozen serac eta elur-jausiei ihesi. Abruzzo-
en azkenaldera dagoen ertz honek enbutu
haundi bat du metro gutxi batzuk ezkerre-
ra, baina hortik behera datorren ezerk ez
lezake ertzaren arrimoan doan bidea ikutu,
mendia bera erortzen ez bada behintzat !!!

Lau egun behar izan ziren lehenengo kan-
pamenduko denda jarriko zen tokira iristeko;
gutxira mila metro pasatxo soka (batzuek
aurreko urtean beste espedizio batek egin-
dako saialdian utzi eta guk errekupeatuak)
eta 1.400 metroko igoera beheko kanpa-
mendutik lehenengoaren 6.300 metrotara.
Ibilbide polita eta segurua, baina gogor
antza igo behar diren metroei begira. Felix
gizajoak plakeziak jota ez zuen txintik apor-
tatu eta beste hiruen izerdiaren ordaina jaso
nuela argitu beharko dut, tokatzen ez zaidan
lorerik neure buruari bota ez diezaiodan.

Eguraldiak agindutako atsedenaldea toka-
tu zitzaigun ekainaren erdialdera, batzuo-
i neurrikoa iruditu zitzaigun astebeteko para-
da, espezialik ez egin gabe; Albertori, berriz,
garizuma baino luzeago joan zitzaion, han-
kak atrofiatu egingo zitzaizkion beldurrez
edo. Txarraren bueltan ona ekarri zuen
berriz eguraldiak uste ez bezalakoa gainera,
eta okasionari eutsiz jarri ginen agudo mar-
txan.

Lehenengo arazoak

Lehenengo kanpamendutik gorakoa ere
era beretsuan joan zen, soka zaharrak egoki-
tu, behar zen tokian berria sartu eta, pentsa-
turiko moduan, zazpi mila metroen ingu-



ruan bigarren kanpamendua kokatu; zertxobait beherago gelditu zen azkenean, 6.900 inguruan, baina tontorrerako saioa egiteko apropos oraindik ere. Esan behar da bidearen tarte honetan ere aspertzeko edo beldurtzeko motiborik ez genuela izan. Ibilbideak beheko zatiko tonu berean darrai, tente, seguru, terrenoz aldakorra, ...

Egunetan eguraldiak zekarren traza ikusirik, menditik jaitsi eta egun eta erdiren buruan berriro ere mendian ginen, oraingotan tontorrerako saioa egitekotan.

Goizeko ezorduetan (bederatziak inguru arte) jaikitzeo neurria hartzea izugarri kostatzen zait eta goizeko ordubietan altxatu beharra dagoenean, ohera ez joatea bezala dela iruditzen zait. Hala ere, mendizale artean bada disziplinatua denik ... eta disziplina jarriarazten duenik ere bai!

Behin trantze hori gaingitu eta gero, beste baten atarira hurbiltzen naiz. Bada bizipen berezi bat tontorrerako saiora abiatzerakoan beti bizi izaten dudana. Motxila bizkarrera bota eta gauaren ilunean glaziarreko harri artean pauso dorpeak emanez lehenbiziko hirurehun edo laurehun metroetan, bide tarte hori kontrako norabidean noiz eta nola egingo dudan pentsatzen joaten naiz, gorputzari aparteko paliza eman behar diodan ziurtasunez eta golkoa bete kezka (eguraldiak lagunduko ote duen, indarrik izango ote dudun, mendia nola aurkituko dugun ...)

Ez dut berriz errepikatuko zazpi mila metro artekoa, nobedade gabe joan baitzen, bakoitza bere martxan, egun batzuk lehenagoko arrastoa aprobetxatuz (hala ere, bada-kizue atzekook hobekixeago aprobetxatzen dugula aurrean joaten direnak baino !!!)

Bigarren kanpamendutik atera

Bigarren kanpamendutik goiz xamar atera ginen, ilun zegoen oraindik ere, eta oso ilun gainera, lainoa sartu baitzuen eta eguna garbitzera zetorren ahala ez zuen bat ere itxura txukunik erakutsi.

Erdi galduta ibili eta gero, sakuaren beroa itzultzeko proposamenik egin ez zenez, eguna argitu zuenerako bide onean ginen, gorako martxan, hori bai, belau ingururainoko elurretan sartuta.

Neure kaxkarrean egunsentia artekoa iraun nuen, justuan-justuan, noiz gelditu beti zain eta berriz martxa hartzeko beldurrez; eta nahi eta ezin horretan egin nuen leher. Barruan nituen guztiak bota nizkion elurrari, hura zen bota beharra. Neure burua horren abagune errukiorrean ikusirik, saioa bertan uztea erabaki nuen; baina beheraka nentorrela ez dakit barruak arindu nituelako izan zen edo neraman karga lagunei emanik motxila arindu nuelako, kontua da, bapatean, espedizio guztian zehar izan ez nuen freskura sentitu nuela eta neure buruari esaka hasi



nintzen: "horren gaizki ere ez hago ba, goiz duk oraindik eta egin ezak ahalegintxo bat, ea beheraka adinako airoso sentitzen hai-zen". Buelta eman eta berriz gora. Ibilian Bizkaiko txerriaren bertso sorta kantatzeko adorerik ez nuen atera, baina poliki-poliki, beti atzetik, hori bai, lagunaren pausoari jarraitzeko gai izan nintzen.

Juan Tomas ikusi nuen gehientsuenetan aurrean tiraka, 7.900 metrotara arrimatu ginenerako lan izugarria egin zuela, eta guztia behar izan zen. Beste hiruek ere tarte politak iriki zituzten eta, hala ere, lepora iritsi



Fotos: Hnos. Inurategi



Imágenes del ascenso al K2

ginenerako eguerdia pasatxo zen. Dendak ipini, elurra urtu eta sakura.

Azkenengo egunean, aurrekoetan bezala, besteek egindako bidea jarraitu baino ez nuen egin, poliki-poliki auspoa gehiegi estutu gabe. Oso tarte motzeko saioak eginez osatu nuen igoera, deskantsu bakoitzean granpoiak eta pioleta izotzean sartu eta belaun gainetara kokildurik lo eginez errekupeatu nintzelarik. Kike eta bion modalitate honek harridura sortu zuen besteengan, behera begiratzen zuten bakoitzean lo ikusten baikintuzten eta igo noiz egiten genuen asmatu ezinka zebiltzan eta.

Eguzkiak harrapatu gintuenerako, goizaldeko lauetatik bostetara bitartean, botila-lepoaren inguruan ginen. Ordurarte bakoitza bere kasa joan baginen ere, soka gerrira lotzeko obligazioa ikusi genuen, serac haundiaren azpian pasatu ahal izateko. Ondoren, "Mariren harria" izenez bataiatu genuen puntura iristea izan zen burruka, bide benetan aldapatsua gainditu beharra baitzegoen eta, handik aurrera, ordu-beterako aurrikusi eta hiru ordu luzetan bete zen lana sufritu genuen. Aurrean Alberto, hortzak estutu eta bidea irekitzen, atzetik Juanito, bidea zein luzea zen esanez mekaguenka, Juan Tomas jarraitzeko zalantzetan eta, metro batzuk atzerago, Kike eta Felix, kuluxka eta kuluxka artean metro batzuk irabaziz.

Gailurrean poza

Gailurrean poza. Poz haundia. Eguraldi polita atera zitzaigun tontorreko egunean; igoerak luze jo bazuen ere, arazorik ez. Alber-

tok irratirako hitz egin zuela jakinarazi zidan, oso ongi atera zela. Juanito orduan ari zen walkia eskuetan hartuta gaina osatzen zuen ertzaren beste muturrean Gasteizko entzule-entzako hizketan, besarkadak, emozioa, ... eta ardura. Juan Tomas abiatu zen lehenik behera, eta haren atzetik gainerakook. Mariren harritik botila lepoaren azpira artekoak eman zizkigun lanik haundienak, baina gaua mendia jabe egin orduko denda inguruan ginen. Hurrengo goizerako eguraldiak erabat kaxkartu zuen eta bigarren kanpamendura artekoa lainoan egin behar izan genuen igoeran utzitako banderineei eta zenbait lekutan oraindik ere bereiztu zitekeen arrastoari jarraituz. Gero, sokari heldu eta behera, behera eta behera, lagunaren artera, sukaldearen berora, arroz egin berriaren usainera.

RESUMEN

K2

A Islamabad en avión, a Rawalpindi en taxis (muchos), a Skardu en autobús, a Askole en jeep ... y al Campo Base en 6 etapas a pie, que llenan el cuaderno de Alberto de nombres y cifras, para encontrarse al fin al pie de la arista SSE de la montaña de las montañas.

Campo I a 6.300, Campo II a 6.900.— la habitual disciplina montañera del madrugón y la paliza diaria — y el último amanecer, de 7.900 metros para arriba, les coge el sol a las cinco, Alberto con los dientes apretados, Juanito jurando, Juan Tomás entre dudas y detrás Kike y Felix, ganando metro a metro la larguísima subida hasta llegar a la alegría incontenible de la cima ganada.